

# ARRISKUTSU GERTA DAITEZKEEN ANIMALIAK

<p><b>a) Oinarri juridikoa</b></p>	<p>DBEO: 6.1.b) Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.</p> <p>DBEO: 6.1.c) Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.</p> <p>50/1999 Legea, abenduaren 23koa, arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzearen araubide juridikoari buruzkoa.</p> <p>Barañaingo udalerrian arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzea arautzen duen ordenantza.</p>
<p><b>B) Tratamenduaren xedeak</b></p>	<p>Mota horretako animaliak edukitzeko eskaerak eta baimenak kudeatzea, baita arriskutsu gerta daitezkeen animalien erregistroa mantentzea indarreko araudiarekin bat.</p>
<p><b>c) Kolektiboa</b></p>	<p>Eskatzaileak eta beren legezko ordezkariak.</p>
<p><b>d) Datuen kategoriak</b></p>	<p>Izen-abizenak, NAN/ IFK/Nortasun-dokumentua, helbidea, sinadura eta telefono-zenbakia.</p> <p>Beste datu-mota batzuk: Gaitasun fisiko edo psikologikoa egiaztatzen dutenak eta aurrekari penalik ez izatearenak.</p>
<p><b>e) Hartzaileen kategoria</b></p>	<p>Herritarren Babespen Arloa (Udaltzaingoa)</p> <p>Nafarroako Gobernua (Osasuna)</p>
<p><b>f) Nazioarteko transferentzia</b></p>	<p>Ez dira datuen nazioarteko transferentziak aurreikusten.</p>
<p><b>g) Ezeztatze epea</b></p>	<p>Beharrezkoa den bitartean mantenduko dira eskatu ziren garaiko xedeak betetzeko eta xede horretatik zein datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak betetzeko. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da, <u>eta datuak ezabatuko dira animalia hiltzen denean.</u></p>
<p><b>h) Segurtasun-neurriak</b></p>	<p>Ezarrirako segurtasun-neurriak bat datoz Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinean (Segurtasun neurriak) aurreikusten direnekin; Barañaingo Udalaren datuen babeserako eta informazioaren segurtasunerako politika osatzen duten dokumentuetan azaltzen dira neurriak.</p>
<p><b>i) Entitate arduraduna</b></p>	<p>Barañaingo Udala</p>